



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko urriaren 16ko Aginduaren bidez, urriaren 28ko 215 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

EBATZI DUT

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak, guztira 173.550 euro.

Bigarrena.- 12. artikulua zehaztutakoaren arabera, II. eranskinean ordezkoen zerrenda ezartzea, hauek hutsuneak gertatuz gero beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean jasota agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 10



ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA